

## SAN MARTIN, Juan. *Giza eskubideen inguruan.*

Elkarlanean, S.L. Donostia, 2000. 21 x 14 zm.; 159 orrialde.

Xabier ARAMBURU SAGARTZAZU

Juan San Martinen argitara berri duen liburuak Giza Eskubideen inguruan izena du.

Irakurtzen gasiz gero, erraz sumatzen ditu irakurleak hiru berezitasun:

Lehenengoa, San Martin jauna sei urtez Ararteko izan zena, hain erraz erabiltzen baititu giza eskubideen kontzeptu eta ideiak. Bigarren, klarki dagoela Juan San Martinen gaztetatik zin egin zuela euskararen alde bere bizitza jartzea, erabiliz, ikertuz eta idatziz. Eta azkenik, bere erudizioa; hainbat irakurketa, hainbat estudio, hainbat lan buruz argi eta begiak zorrotz irekiak eginak.

Gaurko munduan Giza Eskubideen ideia eta izena ere asko erabiltzen dira eta askotan pentsatzen dugu gaur egun sortutako gaizak direla, eta gainera kanpoan, guregandik urrun. Eta ez da hori egia. Giza eskubideetan euskaldunok asko egin dugu. San Martinen liburuaren lehenengo hitzak hauek dira:

*"Euskal herritarrok inora joan beharrik ez dugu giza eskubideak zer diren jakiteko. Historian zehar, bertako seme-alabagandik adibide eredugarriak ez zaizkigu falta, eta horiek ikasi eta jarraitu beharrezkoak iruditzen zaizkit".*

Hor dago, argi handiz hornitua, Frantzisko Vitoriakoa, arabar familian jaioa. Parisen ikasle, gero Sorbonako Unibertsitatean irakasle, bai eta Valladolid eta Salamancako Unibertsitateetan ere. Bere

garaiko problemel erantzunak emanaz, gaur egungo Nazioarteko Zuzenbidea sortu zuen.

Bere ondokoa, Martin Azpillikueta, "Doktor Nabarro" izenarekin ezagutzen dena, nafarra noski, Frantziako Toulousen ikasketak egina, Salamancako unibertsitatean Irakasle, Portugalera Irakasle bezala deitua, eta azkenik, Erroman hiru Aita Santuen aholkulari izana. Lege gauzetan trebea.

Aita Larramendi, Xabier Munibe eta bere lagunak "Azkoitiko zalduntxoak" delitu izan zirenak ilustrazio garaian. Eta gure mendeen ahaztu ezin dezakegun Jesus Galindez, amurriarra.

Askok jakingo ez dutena zera da: 1948. urtean ONUk mundu osora azaldu zituen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren testu beerbera euskaldun batek bultzatua eta idatzia izan zela. Gizon hori, ama euskaldunaren bitartez, Lapurdiko hiriburuan, hau da, Baionan jaio zela. Bere izena René Cassin, Oxford eta Maguntziako unibertsitatean izendatua eta 1968. urtean Bake Nobel Saria irabazi zuena. Hala dio Juan San Martinen bere liburuan.

Giza Eskubideak direla eta, egileak sakonki erabiltzen ditu Euskararen Eskubideak, edo hobeto esateko, gizonak dituen eskubideak hizkuntza erabiltzeko.

Gai horretaz kapitulu ederrak ditu Juan San Martinen. Alpatuko ditu euskara, Lingua Navarrorum-en zoritxarra edo giza eskubiderik eza. Euskararentzat eragozpenak Araban. Euskara epaltegetan eta abar.

Gezurra dirudite euskararen inguruan gertatuak eta gertatzen ari direnak. Gai honetaz espreski idatzitako beste liburu bat badu Juan San Martinek, Euskararen ostarteak deitzen dena.

Bi liburu *-Giza eskubideen inguruan* oraintxe argitaratu berri dena eta bi urte lehenago argia ikusi zuen *Euskararen ostarteak*-hauek dira euskaldun ohartu batek irakurri behar dituenak.

Buka dezagun *-dastamen ona utzita-* Ramon Menéndez Pidal jakitunak, 1921. urtean Euskal Herriari esan zizkion hitzekin eta liburu honen egileak jaso zituenak: "...erlikiarik agurgarrienaren jabe zarete. Beste batzuek izan dezakete arte balio hoberik, baina ez da zuona bezalako garrantzia duen beste hizkuntzarik, zeren bere ikerketa sakondu gabe inoiz ere ezingo dira ezagutarazi antzinako zibilizazioaren ibilerak".